

PRENTSA OHARRA

Ikus-entzunezkoen Klusterrak martxan jarri du EikenBANKen hirugarren aldia, enpresen eta gazte sortzaileen arteko topaketa bultzatzeko

- **Dagoeneko hainbat proiektu garatzeko aukera eman duen ekimena finkatu egin da, profesionalen eta ez-profesionalen arteko komunikazioko zubi gisa**
- **Idea irabazleaz gainera, 4.000 euro eta prestakuntza beka jasoko dituen, parte-hartzaileek Euskadiko ikus-entzunezkoen enpresekin harremanetan jartzeko aukera izango dute *in situ***

Eiken – Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak abian jarri du hirugarren urtez jarraian Euskadiko talentu ez-profesionalaren erakusleiorik handiena: EikenBANK. Batez ere, gazte ikasleentzat eginiko ekimen honek harreman zuzena bermatzen du, prestatzen ari den talentuaren eta sektoreko enpresen artean; hartara, bi taldeek jaso ditzakete sorkuntza prozesuaren onurak.

Aurreko bi aldietan egin izan den bezalaxe, datozen asteetan EikenBANKeko arduradunek aurkezpenen egitarau zabala hasiko dute prestakuntza zentroetan, zinema eskoletan eta unibertsitateetan. Hitzaldi nagusia Eikeneko zuzendari Itziar Menak emango du, ikus-entzunezkoen arloko profesionalen unean uneko lankidetzarekin.

Hitzaldi horien helburua da, programan parte hartzeko hautagai nagusiak diren gazteen artean, mila lagun baino gehiago elkartzea eta beren ideiak www.eikenbank.com web orrian jartzea.

EikenBANK programak 4.000 euroko saria aurreikusten du ideia onenarentzat, eta, horrez gainera, herrialdeko ekoizpen etxe nagusietako batean ideia garatzeko, eta, ondoren, emateko aukera eskainiko dio. Era berean, proiektuaz arduratzen den pertsonak prestakuntza beka bat jasoko du, 4 hilabetez lana egiteko ekoizpen etxe horretan. Gainerako finalistek ere *face to face* topaketak izango dituzte programan laguntzen duten enpresekin, eta, horrela, gazteen eta enpresen arteko elkarrekintza bermatuko dugu.

Programaren arrakastak aurreko bi aldietan hazten joan den parte-hartzearen bermea du. EikenBANKeko lehen aldian, 2008an, 27 proiektu aurkeztu ziren, eta 2009an, berriz, kopurua 55era iritsi zen. Programaren arduradunek, emaitzak ikusita eta aurkeztutako hainbat proiektu ekoizpenaren arloan islatu direla jakinda, aurreko parte-hartzaileen kopurua areagotzea espero dute.

Programaren funtzionamendua

Aurreko aldietan bezala, programan parte hartu dezakete ikus-entzunezko proiektu originala duten gazteek; baldin eta, lanean edo lankidetzan ez badira ari modu jarraituan sektoreko enpresetan eta edukien arloan. Programaren oinarriak eta prozedura osoa web batean jasota daude, horren bidez egituratzen da, hain zuzen, ekimen osoa (www.eikenbank.com).

EikenBANKek aukeratu eta sarituko duen proiektua modu profesionalean garatuko du programan parte hartuko duen ekoizpen etxe batek, edo batzuek, eta, azkenean, EiTbK emango du.

EikenBANKen ikus-entzunezko produktuen proiektu, gidoi, maketa zein pilotuak (TBko programak, telesailak, lehiaketak, magazinak edo realitiak, animazioko produktuak, dokumentalak, multimedia produktuak, ...) aurkez daitezke, EikenBANK programaren inprimaki egituratuaren arabera aurkezten baldin badira. Horren harira, programaren arduradunek, batik bat, proiektuen originaltasuna eta bideragarritasuna balioetsiko dituzte. Lanak aurkezteko epea apirilaren 30ean amaituko da.

Eiken – Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak bultzatutako proiektuan honako enpresa hauek inplikaturiko dira: 3Koma, Baleuko, Canal Bizkaia, EiTb, Irusoin, Jarkatza, K2000, Orio Produkzioak eta Pausoka. Horrez gain, erakunde eta administrazio publikoek (Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Bilboko Udala eta BBK Gazte Lanbidean), hezkuntza zentroek (UPV/EHU, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea) eta EAEko zinema eskola guztiek parte hartuko dute.

EikenBANK III. aldiaren bisiten behin-behineko egitaraua:

EGUNA	LEKUA	ORDUA	TXOSTENGILEA
02/9	Escivi - Andoain	10:15	Aitor Alzibar (Balea)
02/10	HUHEZI - Eskoriatza	13:30	Beñat Ibarbia (Orio Produkzioak)
02/16	Kinema	13:15	Zehazteke
02/17	Deustuko Unibertsitatea - Donostia	13:30	Zehazteke
02/24	IMVAL - Deustu	10:30	Zehazteke
02/25	UPV/EHUko Komunikazio Fakultatea - Leioa	11:00	Blanca Baena (K 2000)
02/26	Mendizabala	10:00	Zehazteke
Martxoa	Tartanga - Erandio	10:00	Blanca Baena (K 2000)

EikenBANKeko irabazleen zerrenda:

Aldia	Proiektu irabazlea	Egilea	Enpresa
2008	"Pintxos"	Alazne Páramo	3 Koma
2009	"Artículo 35"	Imanol Ortiz	K 2000

Gipuzkoako proiektu onenari emandako beka:

Aldia	Proiektu irabazlea	Egilea	Erakundea	Enpresa
2009	"Descosidas"	Lara Monferrer	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pausoka